



PRENTSA OHARRA: 2025.03.11

Carnegie Internationaleko komisarioak euskal artearen ekosistema ezagutzen ari dira Etxepare Euskal Institutuaren eskutik

- Euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa sustatu eta bertako eta nazioarteko testuinguru artistikoen arteko loturak sustatzea xede duen ZABAL egitasmoaren baitan gonbidatu ditu Institutuak

- Egonaldian zehar euskal testuinguruko proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak ezagutzeko aukera izango dute

Ryan Inouye eta Liz Park, Carnegie International arte garaikidearen nazioarteko erakusketaren komisarioak, Euskal Herrian dira egunotan bertako proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak lehen eskutik ezagutzeko.

Nazioartean prestigio eta oihartzun handia duen erakusketa da Carnegie International; izan ere Ipar Amerikako nazioarteko arte-mostrarik zaharrena baita. Lau urtez behin antolatzen du Pittsburgheko Carnegie Museum of Art-ek, eta 59. Edizioa 2026ko maiatzean hasiko da.

Hiru egunetan zehar Inouye eta Parkek Bilbon, Donostian eta Gasteizen museo, estudio eta arte espazioak bisitatuko dituzte euskal testuingurua bertatik bertara ezagutzeko. Besteak beste, Guggenheim museoa, Tabakalera, Artium Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Azkuna Zentroa, Atoi, Bulegoa z/b eta Azala espazioko arduradunekin batzartuko dira, eta bere interes artistikoekin bat egiten duten euskal artistekin elkartuko dira haien obra ezagutzeko.



Gainera, bi komisarioek Madrilgo ARCO nazioarteko arte garaikidearen azoka bisitatu dute Euskal Herrira iritsi aurretik, eta han hainbat euskal artistarekin elkartu, haien lana ezagutu eta beste esperientzia batzuk partekatzeko aukera izan dute.

Carnegie International

Carnegie International mundu mailan ospe eta oihartzun handia duen erakusketa da, Ipar Amerikako nazioarteko arte-mostrarik zaharrena izateagatik. Lau urtez behin antolatzen du Pittsburgheko Carnegie Museum of Art-ek, eta bere 59. edizioa –2026ko maiatzaren 2tik 2027ko urtarrilaren 3ra– orain arteko lankidetzaren eta irismen handienekoa izatea espero da.

Mundu osoko artistek eta kolaboratzaileek parte hartuko dute Carnegie International erakusketan eta, hain zuzen ere, nazioarteko mostra hori osatzeko eta bertan ikusgai izango diren artistak hautatzeko ardura dute **Ryan Inouye eta Liz Park komisarioek**.

Ryan Inouye, nazioarteko arte- komisarioa da 2023az geroztik Pittsburgheko Carnegie Museum of Art museoan; Pittsburghean lan egin aurretik, Inouye komisario nagusi izan zen Arabiar Emirerri Batuetako Sharjah Art Foundation-en. Bertan, banakako eta taldekako erakusketak antolatu zituen, besteak beste.

Liz Park, arte garaikideko kontserbatzailea da Richard Armstrong Pittsburgheko Carnegie Museum of Art museoan. Gaur egun museoko bilduma berrinstalatzen dihardu bertan. Duela gutxi, erakusketa-komisarioa izan da Buffaloko Unibertsitateko Arte Galerietan (AEB) eta komisario elkartua 2018ko Carnegie Internationalen.

ZABAL programa

Etxepare Euskal Institutuak 2019. urtean jarri zuen martxan ZABAL programa euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa bultzatu, euskal eta nazioarteko arte testuinguruaren artean loturak sustatu eta nazioarteko arte erakusketa garrantzitsuenekin lankidetzaren ildoak garatzeko helburuz. Horretarako, Institutuak nazioarteko komisarioak, arte kritikariak edo eta museo zuzendariak gonbidatzen ditu



euskal testuinguru artistikoa ezagutzera, harreman zuzenaren bitartez euskal artistekin elkarlana sustatzeko.

Azken urteotan euskal artearen testuingurua ezagutzeko aukera izan dute nazioarteko ekimen garrantzitsuenetako batzuen komisarioek: São Pauloko biurtekokoak (2019 eta 2022an), Documenta Fifteenekoak (2020), Shanghaiko Biurtekokoak (2021 eta 2023), Veneziako Biurtekokoak (2022), Istanbulgo Biurtekokoak (2022), Art Jameel erakundekoak (2022) eta Sydneyko Biurtekokoak (2023).

Ekimenak **hainbat emaitza nabarmen** utzi ditu, hala nola, argialetxearen eta Consonni kultur gune independentearen parte-hartzea Documenta Fifteen (2022) lanean edota June Crespo **Veneziako Bienalean** (2022). Aipatzekoa da, halaber, Kutxa Fundazioaren bildumako 'Katalina Erauso, Monja Alferezen erretratua' 2023ko **São Pauloko Bienalera** joan zela, eta Jorge Oteizaren eta Itziar Barrioren lanak **Shanghaiko 14.Bienal** erakusketan izan zirela ikusgai. Gainera, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen lanak **Sydneyko Bienalean** (2024) ere ikusi ahal izan ziren.

ZABAL programa aurrera eramateko, tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen **Artingeniumen** laguntza teknikoa jasotzen du Etxepare Euskal Institutuak.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Info+

Mikel Lasa Iza
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus